



Bilbotik Donostiara A8  
autopistatik joanez,  
goiz esnatu behar  
duzu, fakultatera  
garaiz helduko bazara.





(...) fakultatera garaiz helduko bazara.

Adibideko BA- perpausa, ez da baldintza arrunta. Izan ere, perpaus horrek nahia edo xedea adierazten du, eta ez, zerbait gauzatzeko edo lortzeko bete behar den ekintza edo gertaera.

Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak


helburu-perpausetan sailkatu du perpaus mota hori

[EGLU-VI (Mendeko perpausak-2), 51. or.].

(...) goiz esnatu behar duzu (...)

Mota horretako perpausetan, perpaus nagusiak (hots, BA- partikularik gabeak) adierazten du, izatez, "bete behar den ekintza edo gertaera" hori. Alegia, gure adibidean, goiz esnatzea da, hain zuzen, fakultatera garaiz heltzeko bete behar den baldintza.

- Goiz esnatzen bazara, garaiz helduko zara fakultatera.





Oro har, honela parafrasea daitezke horrelako perpausak:

(Goiz esnatu behar duzu, fakultatera garaiz helduko bazara).

- Fakultatera garaiz heldu **nahi baduzu**, goiz esnatu behar duzu.
- Fakultatera garaiz hel**tzeko**, goiz esnatu behar duzu.

Perpau nagusiak "behar izan" aditza dauka, gehienetan.

- Parte hartuko baduzu, telefono honetara deitu **behar duzu**.
- Azkar ibili **behar du** Anek, lau orduan **etorriko bada** Aizarnatik Donostiara.

Edo, adierari dagokionez, aditz horren antzeko den esapidea:

- **Nahitaezkoa zait** lan hau ostiralean bukatzea, asteburuan mendira **joango banaiz**.



## Hona zenbait adibide:

- (...) eta, jakina, hizkuntza sendo eta osasuntsu **egongo bada**, bere osotasunean **landu eta garatu behar da**.
- Hizkuntza familia barruan eta herriko eguneroko bizimoduan ikasteak beti laguntzen du sena hartzeko eta lantzeko orduan, eta hizkuntzak sendo **iraungo badu**, **ezinbestekoa da sena**

(Koldo Zuazo; Euskara Batua)



Aitzitik, honako esaldi hauek ditugu erabilera okerraren erakusgai, baldintza arrunta adierazteko baliatu baitira.

- \* Dudan nago: joan, ez joan. Baina, **joango banaiz**, deitu egingo dizut.
  - Dudan nago: joan, ez joan. Baiezkoan, deituko dizut.
  
- \* Datu horiek bakarrik **hartuko badituzu** kontuan, emaitza okerra izango duzu.
  - Datu horiek bakarrik **hartzen badituzu** kontuan, emaitza okerra izango duzu.
  
- \* Afarian alkohola **edango badut**, taxiz itzuliko naiz etxera.
  - Afarian alkohola **edaten badut**, taxiz itzuliko naiz etxera.



Fitxa honetan aztertu dugun perpau motan ez ezik, beste bitan ere erabiltzen da [-ko + ba-] egitura: zehargalderan (a) eta kontzesio-perpausetan (b).

- a) Ez dakit **jaitsiko banaiz** (ez dakit jaitsiko naizen).
- b) Solairuetako oinak etxebizitzarako izango dira, lehen oinean bulegoak **onartuko badira ere**.

Lehen erabilera (zehargaldera) "...bizkaierari dagokio (...) ahozko hizkeran batez ere" (EGLU-V, 100. or.).

